

I. BLOKEA

Agony aunt, aholkulari sentimentala



Etapia: 16 - 20 urte artean edo gehiago.



Zailtasun-maila: oinarrizkoa edo ertaina



2 kide



Denboralizazioa: 10 saio



Etiketak: pribatutasuna sarean, sareekiko atxikimendua, zibersegurtasuna, entzumen aktiboa, espiritu kritikoa.

Jardueraren deskripzioa: (4 lerro gehienez)

Ikastalde batek haiek edo hurbileko norbaitek izandako bizipenen berri emango du sareko pribatutasun-arazoei, atxikimenduei edo informazioaren manipulazioari buruz. Kideek balizko irtenbideak pentsatu eta aholkuak emango dizkiete laguntzeko.

Helburuak: (3 gehienez)

1. Internetek eragin ditzakeen desinformazioa, manipulazioa eta arazoak aztertzea eta, aldi berean, ikasleei espiritu kritikoa garatzeko aukerak ematea.
2. Tresna digitalak arduraz erabiliz informazioa partekatu eta kolaboratzea.
3. Komunikazio-trebetasuna eta pertsonartekoak hobetzea.

Gako konpetentziak eta zeharkako gaiak:

- Konpetentzia sozial eta zibikoak: enpatia, entzutea, ezberdinarekiko errespetua eta besteak laguntzea sustatzea.
- Hizkuntza-konpetentzia.
- Konpetentzia digitala.
- Komunikabideetarako heziketa.
- Heziketa moral eta zibikoa.

Curriculumeko edukiak:

- Ahozko zein idatzizko komunikazioa hobetzea, atzerriko hizkuntzan batez ere.
- Aholkuak adierazteko egitura gramatikalak erabiltzea.
- Herritar digital arduratsuak. IKTak erabiltzea.

Inklusio-alderdiak:

Onarpena, entzuteko jarrera, besteearekiko errespetua eta ezberdintasunak integratzea sustatzen da; izan ere, egoera sozioekonomiko, kultural eta erlijioso ezberdina duten adin bereko ikasleen arteko arrisku-egoerak hautematen dira.

Aurreikusitako produktuak / emaitzak:

Bi ikastetxeko horma birtual bana (Padlet edo antzekoa), kontsultak eta aholkuak jasoko dituen eta TwinSpace-ko orri batean integratua egongo dena.

- Posterrak.

Jardueraren garapena



Prestakuntza

1. urratsa

Dozenteeek ikasleak TwinSpace-ra gonbidatuko dituzte.



[Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra.](#)

<<http://etwinning.es/es/como-invitar-a-los-alumnos-al-twinspace/>>

Dozente kide batek orri bat sortuko du TwinSpace-n *Agony aunt* izenburuarekin. Bertan, ikasle kideak nazioarteko bikoteetan nola antolatuko diren argitaratuko du.



[Nola sortu orri bat TwinSpace-n](#)


<<http://etwinning.es/en/nuevo-twinspace-como-crear-una-pagina-de-actividades>>



Agony Aunt

HERE IS GROUP MATCHING LIST

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/1.../usp=sharing>



	A	B	C	D
1		Students will write replies and find solutions to the problems	links	Students will write replies and find solutions to the problems
2	1st group		https://padlet.com/yimxpu/can/hovwamkasa71	
3	2nd group		https://padlet.com/zuhameipolu/1x13v78uceb6g	
4	3rd group		https://padlet.com/ozoe_kurt/yv090z5f10e	
5	4th group		https://padlet.com/inemo200j2w0a89a1pjm	
6	5th group		https://padlet.com/mehastouy009v9oseovmhb	
7	6th group		https://padlet.com/jalicyaloin0201y5y1hg	
8	7th group		https://padlet.com/semvifearzwh2arug2hnebf	
9	8th group		https://padlet.com/3tmvifearzwh2arug2hnebf	
10	9th group		https://padlet.com/mrmseviv63oqm2h43vg	
11	10th group		https://padlet.com/jeal_araposestive70vw8a2yhvy	
12	11th group		https://padlet.com/karvya48vjcF38obod4	
13	12th group		https://padlet.com/jaursoy7810op11m22ahy7	
14	13th group		https://padlet.com/orhancay241961ib2puz6z1	

TwinSpace 1

2. urratsa

Ikasleek sareko pribatutasunarekin, atxikimenduariarekin eta informazioaren manipulazioarekin lotutako arazoei buruz pentsatu eta azalpenak emango dituzte; haiek edo hurbileko norbaitek bizitakoak izango dira.

3. urratsa

Agony aunt orrian, dozente batek Padlet edo antzeko horma digitala txertatuko du, eta bisitariak argitalpenean iruzkinak egiteko aukera aktibatuko du. Padlet horretan, ikasleek *Agony aunt* izeneko aholkulari sentimentalari gutun bat idatziko diote, non haien arazoaren berri emango duten eta konpontzen lagunduko diela espero dutela adieraziko duten.



[Nola sortu horma digital bat Padlet-en.](https://youtu.be/OYZmW9wMfyU)

<<https://youtu.be/OYZmW9wMfyU>>



2 [TwinSpace-rako esteka](#)


4. urratsa

Ikasle kideek gutunak irakurri, balizko aholkuak, irtenbideak, kontsolamendu-esapideak, jarduketajarraibideak, etab. pentsatu eta ikaskideari erantzungo diote, baita beste batzuei ere, aholkurik edo laguntzarik eman diezaieketela uste badute.

5. urratsa

Dozente kideek lineako bilera bat antolatuko dute TwinSpace-ren bidez, eta haietako batek aretoa sortuko du. Halaber, dozentek ikasleei haien eginkizuna esleituko diete (idazkaria, bozeramailea, moderatzailea, teknikaria...), eta saioaren garapena adostuko dute, adibidez:

- Agurtzea eta aurkezpenak egitea.
- Ikasleek hitz egin eta aurreko horma digitalean jasotako arazo guztiak aurkeztuko dituzte.
- Ikasleek 3 arazo kezagarri eta adierazgarrienak aukeratuko dituzte.
- Ikasle bozeramaileek ondorioak aurkeztuko dituzte.



[Nola sortu online bilera bat TwinSpace-n](#)

<http://etwinning.es/es/actividades-para-proyectos/como-crear-un-evento-online-videoconferencia-en-el-twinspace/>



Web kameradun ordenagailua, bozgorailuak, mikrofonoa, arbela digitala eta proiektorea.

6. urratsa

Dozente batek *Posters* izena izango duen orri berria sortuko du, eta TwinBoard horma bat gehituko du, *Project's poster selection* izenburua izango duena. Ikasleek poster bana sortuko dute, eta bertan, bideokonferentzian aukeratutako hiru arazo kezagarri edo adierazkarrietako bat konpondu edo arintzeko aholku, gomendio edo jarraibidea emango dute. Ondoren, TwinBoard-era igoko dute.

Hona hemen posterrak sortzeko zenbait tresna erabilgarri:



[Adobe Spark](https://www.adobe.com/express/) <<https://www.adobe.com/express/>>,



[Canva](https://www.canva.com/es_es/educacion/) <https://www.canva.com/es_es/educacion/>,



[Genially](https://www.genial.ly/login) <<https://www.genial.ly/login>>,



[Sway](https://sway.office.com) <<https://sway.office.com>> edo antzekoren bat.

Dozentek posterrak TwinBoard-ean partekatuko dituzte, baina inprimatu eta institutuko eTwinning oholean ere jarriko dituzte.




[Nola sortu TwinBoard bat](#) (bideoaren 2. zatia)

<<https://youtu.be/Ao5ZYV0A8Mo>>

TwinSpace

4

PROJECT'S POSTER SELECTION



TwinSpace 4

6. urratsa

Dozente batek *Poster contest* izeneko orri berria sortuko du.

Dozente kideek online galdetegi bat sortuko dute ([Google forms](https://www.google.com/forms/about/) <<https://www.google.com/forms/about/>> edo antzekoak), egindako poster guztiak jasoko dituen onena aukeratzeko. TwinSpace-n sortutako azken orrian txertatuko dute. Jarraian, dozente kideek galdetegia partekatuko diete ikasleei, eta haiek haien inguruko hiru pertsonari bidali beharko diete gutxienez gogokoena aukeratzeko.

7. urratsa

Ikasle irabazlearen irakasleak bozketaren emaitza argitaratuko du aurreko orrian eta poster irabazlea atxiki eta nabarmenduko du.

Dozente kide bakoitzak argitalpenerako esteka txertatuko du bere ikastetxearen webgunean.

TwinSpace

5

Pages

BRAIN STORMING OF IDEAS and PROJECT PLANS

WELCOME TO OUR PROJECT

eSAFETY , DATA PROTECTION and PROJECT RULES

COPYRIGHT and COPYRIGHT INFRINGEMENT

Web 2.0 TOOLS

DISTRIBUTION OF THE TASKS

LETS KNOW PROJECT TEACHERS

CETIFICATES OF THE PROJECT'S TEACHERS

WATSUP GROUP LINK FOR THE

POSTER CONTEST

<http://www.tricider.com/brainstorming/3N8II332XpZ>

Winner of the poster contest is CIP TAFALLA



TwinSpace 5

8. urratsa

Dozente kideek poster-lehiaketaren irabazleari diploma entregatzeko ekitaldi txiki bat antolatuko dute (zentro irabazleak, aurrez aurrekoa; zentro kideek, bideokonferentzia bidez).

TwinSpace

6 [TwinSpace-rako esteka](#)



TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:

TwinSpace: TwinBoard, bideokonferentzia



Beste tresna batzuk:

- Horma birtuala: Padlet edo antzekoren bat
- Posterrak: [Adobe Spark](#), [Canva](#), [Genially](#) edo antzekoren bat
- Lineako galdetegiak ([Google Forms](#) edo antzekoren bat)
- [Google Docs](#)